

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua martxan jarri baino lehen, derrigorrezkoa da gure enpresan baliabideak edukitzea. Gure kasuan, baliabide ukigarriak eta ukiezinak edukiko ditugu.

Diruari dagokionez, 50.000€ beharko ditugu gure proiektua martxan jartzeko. Taldekide bakoitzak 10.000€ jarriko ditu eta bankuari beste 10.000 eskatuko dizkiogu. Diru hau hurrengo atalean azalduko dugun inbertsionetara bideratuko dugu.

Baliabide ukiezinak ere beharko ditugu, estaerako: Bezeroekin enpatia eta komunikazioa zihurtatzeko pertsona bat beharko dugu. Lan honetarako pertsona aproposena Xabat Laiglesia da, izan ere, Xabaten lasaitasunak eta komunikazio erraztasunak, bezeroak gugana duen konfiantza eta markarekiko lehiatasuna haunditu dezake.



Honetarako taldekide bakoitzak bere abileziak edo zaletasunak eskainiko dizkio taldeari. Horrela, bakoitzak ondo sentituko da lanean, gustatzen zaiona egiten eta ez zerbait ez zaiona gustatzen. Adibidez; Beñati marketina eta sare sozialak asko gustatzen zaizkio eta oso ondo moldatzen da, hau da, asko daki web orriz eta web orrialde asko ezagutzen ditu; Unai bere denbora librean diseinatu egiten du, gainera bizikletak diseinatzea eta modelo berriak egitea asko gustatzen zaio eta hori taldearentzako eta enpresarentzako oso garrantzitsua da. Laura, matematikarekin ondo moldatzen da eta diru kontua asko gustatzen zaio, hau da, kalkuluak egitea, soldatak, bezeroen dirua kontrolatzea... gainera, zati hau ezinbestekoa da enpresa aurrera segitzeko, izan ere, soldatako dirua eta kostu guztien dirua gaizki eramanda, gure enpresa ixteko probabilitate oso handia dago.